



Emilio Lopez Adan

Azkura den lekuan, hazka!

Bada, jakin nahi nuela nola erran euskaraz «anbulantziak ez dira tirokatu behar». Esaldia, hola-hola, frantsesaren kalko hutsa da, Frantziako azpikultura politikoan oso ezaguna, eta hauxe erran nahi du, alegia, desastrearen ostean galdua eta zambuluka dabilena ez dela gehiago ostikatu behar, horren egitea itsusia eta debaldeko ankerkeria dela.

Egitan, aski kalkozalea naiz eta aje handia dela erran didate maiz. Baina Federiko Krutwigek askotan errepikatu zigunez, euskara sortzez indoeuroparra ez bada ere, euskaldunak Mendebaldeko kultura europarrean bizi gara eta inguruko hizkuntzetan sortzen

dena gureganatzea haizu eta beharrezkoa dugu. Finean, besterik ez dugu egin historian zehar. Alta, kalkoak senaz egin behar dira eta ongi landu, kopia huts eta antzuak gerta ez daitezen, eta ni, berriz, hizkuntza kontuetan oso inutil eta funsbako sentitzen naiz. Beraz, ez nekien ambulanzien kontua agertzeko zein zen bidē hoberena, eta nirekiko egin nuen, «Te, Itxarori galdetuko zioat», Itxarok garantia guztiak baititu: laborari alaba, zinezko idazlea, eta, irizpide nagusia, hari den-dena errespetatzen diote EGUNKARIAKO erre-dakzioan. Niri, berriz, Xuxen zuzentzailea gogor aplikatzen didate, eta Euskaltzaindiak ez bezala idazten ba-

dut *erligio*, *aie*, *herbeste* edo dena delakoa berehala aldatzen didate, gupidarik gabe, eta *erlijio*, *aje* edo *erbeste* inprimatu. Xuxenek niri ere den-dena gorritz emokatua uzten dit, eta halere tematzen naiz eta aukeraren aukeraz idazten dut horrela, baina igual Bitoriakoa naizelako ez dut predikamendu handirik Andoaingo Euskal Herrian, eta horiek denak erran behar nituen, Euskaltzaindiak logika guztiarekin idatzarazten digunez «azkura den lekuan hazka» egiten dugulako.

Gero, Itxaro telefonatu behar laguntza eske, eta, askotan bezala, pentsatuen tontakeria zela, haren denbora ebatsiko niola eta trabatu baizik ez niola eginen. Beraz, atzera etxera, «anbulantziak ez direla tirokatu behar» nola euskaratu jakin gabe gelditu naiz, eta azken elkarrizketari buruz zergatik ez nuen deus idatzi galdetu zidan adiskidea ere erantzunik gabe geldituko da.